

## Lesbianak, ia ikusezinak

Lesbianen ikusgaitasunari eta parte-hartzeari buruzko ikerketa bat kaleratu du EAEko Arartekoak

JAKES GOIKOETXEA  
 Donostia

«Zu barnean ez zauden mundua deskribatzen denean, desoreka psikikoko momentu bat gertatzen da, ispilu batean begiratu eta ezer ikusiko ez bazenu bezala. Indar espiritual behar da hutsune horri, zu bota zaituzten ez-izate horri, aurre egin eta altxatzeko, ikus eta entzun zaitzaten exijituz». Adrianne Rich poetaren hitz horiek erabili ditu Inmaculada Mujikak lesbiana askok gizaratean bizi behar duten ikusezintasuna, ez-izatea, adierazteko.

Inmaculada Mujika soziologoa, psikologoa eta Aldarte gay, lesbiana eta transexualen arreta zentroko langilea da. 2005ean EAEko Arartekoak beka bat eman zion Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako emakume lesbianen ikusgaitasunari eta parte-hartze sozialari buruzko ikerketa bat egiteko. Mujikak 18 lesbianari egindako elkarrizketetan eta urteotako eskarmentuan oinarritu zuen ikerketa. EAEko Arartekoak ikerketa liburu batean bildu eta atzo aurkeztu zuen, Donostian.

### Arrazoiak

Mujikaren iritziz, lesbianak ez ikusteko bi arrazoi nagusi ditu: «Alde batetik, gizaratearen balio sexistak: moztu egiten du emakumeen sexualitatea eta beren bizimoduak genero betebeharrak betetzeko estutzen ditu. Bestetik, heterosexualitatea bete beharreko sexualitate bihurtzen da guztiertzat eta lesbianak ezkutatuta, gutxietsita eta estigmatizatuak geratzen dira».

Emakumeei etxeko lanetan, familiar eta zaintzan ezartzen zaien erantzukizun handiagoak lesbianen ikusgaitasuna mugatzen duela dio Mujikak: «Hipererantzukizun horren ondorioz, emakumeek errazago jokatzen dute besteen interesen arabera, beren ongizateari uko eginez. Eta asko murrizten da beren aisialdirako duten denbora. Denbora hori funtsezkoa da harreman afektiboak eta sexualak izateko».

### Ikusgaitasuna

Zer da ikusgai izatea? Funtsean, lesbiana dela esatea. Mujikak bi

ikusgaitasun mota bereizi ditu: indibiduala eta kolektiboa. Prozesu konplexua dela dio.

Mujikak elkarrizketatutako emakumeen artean ikusgarriagoak dira eremu pribatuan (familia, lagunak) publikoan baino (lanean, kalean, komunikabideetan...). «Horren jatorria emakumeen sexu heziketa da: sexualitatea modu intimoa biziitzearen erakusten dietek».

### Lesbianismoaren aurkikuntza

Sorpresa. Ezjakintasuna. Bat-batekotasuna. Nahasmendua. Hori sentitu zuten Mujikak elkarrizketatu dituen emakume gehienek lesbianak zirela sentitu edo jakin zutenean.

Batzuek krisiren bat ere pasatzen dute, beren «barneko eraikina» gainbehera erortzen da. «Nortasun bideragarri eta positibo baten aurkitzeko borroka hasten dute», Mujikaren esanetan. Baita neska gazteek ere. Hori gertatu zitzaion 31 urteko Emmari (izena asmatutakoa da). Mutil-lagunarekin sexu harremanak zituenean ez zegoen gustura eta arazo ginekologiko bat zela uste zuen. Mujikaren iritziz, «deigarria» da halako egoera bat gaur egun gertatzea, bai legetan egindako aurrerapengatik, bai dagoen informazio ugariagatik.

Erreferentzien garrantzia nabarmendu du Mujikak: «Erreferentzia faltak zalantzak, nahas-

menduak eta indefinizio sexualaz gain, aldi asexual luze batetik pasaraz dezake». Lesbiana ezagunen faltak ikusezintasuna areagotzen du, Mujikaren esanetan.

Batzuek estigmatizatuta sentitu dira. Besteak lotsatuta. Batzuek errudun. «Lesbofobiak normalizateko eta talde estigmatizatutik eta bere ondorioetatik ihes egiteko nahia eragiten du, gizaratearen erreal legitimatzeko», dio Mujikak liburuan. Horren adierazgarri, 42 urteko Gemma: «Gaixotasun hau mutilekin harremanak izanez sendatzen saiatu nintzen, baina ez zitzaidan pasa». 42 urteko Asunta ezkondu ere egin zen: «Normaltasuna bilatzen nuen etsi-etsian, batez ere nire buruarekin».

### Familia

Mujikak dio lesbiana izateagatik etxetik bidali dituzten emakume gutxi ezagutu dituela. Horietakoa da Gemma. Aitak jipoitu egin zuen eta erre egin zituen bere gauza guztiak. «Etxetik bidali ninduen. Giltzak kendu zizkidan eta esan zidan etxera itzuliz gero hil egingo ninduela. Amari eta anaiei esanien nahi nuelako joan nintzelan».

Testigantza gehienetan familia izan da emakumeen lesbiana izaeraren berri izan duen azkena. Familiari nola esan da kezka nagusietakoa. «Duela hiru hamarkada kezka bera dago gai horren inguruan», Mujikaren esanetan.

### Hezkuntza

«Emakume guztiak nabarmendu dute hezkuntza formalak ezartzen dien siltasuna eredu tradizional heterosexualarekin bat ez datozen sexualitateei», ondorioztatu du Mujikak liburuan. 18tik bik bakarrik jakinarazi zuten eskolan lesbianak zirela. Arrazoiak: ondorioek eragindako beldurra.

Emmak eta Mirenek gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aintzat hartzen dituen hezkuntza sisteman ikasi zuten. Baina beren esanetatik ondorio bat atera du Mujikak: «Hezkuntza sistema urrun dago gay eta lesbiana nerabeen eta gazteen izaeraren garapen positibo bermatzetik. Eta eraso moral eta fisikoetatik babestetik».

Emmak baztertu egin zuen gainerakoek mutilen jokoerak edukitzeagatik baztertzen zuten neska bat, bere lagun mina. Mirenek ez zuen burlarik jasan. Baina besteek ere iraintzen zuten mutil gay bat iraintzen zuen.

Liburuan parte hartu duten

emakumeetatik inork ez zuen lesbianismoari buruzko azalpenik jasotzen Lehen Hezkuntzan. Eta sexu heziketari buruzko eskola ez zuten lagundu beraiek hobeto sentitzen.

Mujikak hezkuntza sistematik heziketa afektibo-sexuala lantzeko dituen hiru muga nabarmendu ditu: ez duela konektatzen ikasle gay eta lesbianek bizi duten prozesuarekin; eskola horiek salbuespenekoak direla, ez daudela edukietan txertatuta; eta ez dagoela material eta prestakuntza egokirik genero nortasuna, nortasun sexuala edo aniztasun afektibo-sexuala lantzeko.

### Adina

Jonek 62 urterekin jakinarazi zuen lesbiana dela. Bizitzan hartu duen erabakirik onenetakoa dela dio: «Barruan daukazun eta kanpora atera nahi duzun poltsa baten modukoa da». Egin zuen lehen gauza elkarre joatea izan zen. Hala ere, zailtasunak ditu beste emakume lesbiana batzuk ezagutzeko eta haiekin erlaziozatzeko. Mujikak aipatu egin du elkarrekin gay eta lesbiana edadetei laguntzeko duten baliabide falta.

Mirenek 21 urte ditu. Unibertsitate garaian esan zuen lesbiana zela. Familia da bere «oztopo nagusia». «Amak bakarrik daki, baina arazo asko ditu onartzeko». Gurasoen etxean bizi da.

### Ezkontza

Mujikak elkarrizketatutako 18 emakumeetatik lau gizonekin ezkondu ziren eta seme-alabak eduki zituzten. Horrek egoera gordinak sorrarazi zituen. «Mutil hau [senarra] Jez zen pertsona txarra, maite ninduela esaten zuen eta barre eginarazten zidan», dio Jonek. «Berarekin ihes egin nuen. Ihesbidea zen, iragana, emakumeekin sentitzen nuena, ahazteko modua. Fantasiak atzean utziko nituen, normala izango nintzen». Berea kalbarioa izan zela nabarmendu du: «Ez nuen amodiorik egin ezkondu aurretik eta egin nuenean hasi nire kalbarioa. Ez nuen egin nahi, niretzat oinazea zen, baina begiak ixten nituen... eta horrela bizitza guztia».

«Intimitateari dagokionez», jarraitu du, «beste pertsona bat zoriontsu egiten saiatu naiz, ni zoriontsu izan gabe».

Aurorak 28 urte egin zituen ezkondu. «Berarekin nengoenen baztertu egiten nuen, baina sentitzen nuenaren itxura egin behar nuen, jakina! Ezkonduta nengoe-lako eta nire betebeharrak zelako».

### LIBURUA



- **Izenburua:** *Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi.*
- **Egilea:** Inmaculada Mujika Flores.
- **Argitaratzailea:** EAEko Arartekoak.
- **Eskuratzeak:** EAEko Arartekora edo Aldartera jota.

**Sorpresa. Nahasmendua. Hori sentitu zuten liburuo emakume gehienek lesbianak zirela jakitean**

**Elkarrizketatutako 18 emakumeetatik lau gizonekin ezkondu ziren eta seme-alabak eduki zituzten**



Gay eta lesbianen aldeko desfilea, Sao Paulon, Brasil



## 15 ■ Ikasle langileak sustatzeko ekimena

Eusko Jaurlaritzak saritu egingo ditu ikasketak eta lana bateratzeko programan ari diren enpresak.



## 16 ■ Emakumeen aurkako erasoak

Bikoteak eta bikotekidea izandakoak egindako tratu txarrak salatu dituzte zazpi emakumek.

# «Ez da posible lesbiana gazte batek kontatzeko beldurra edukitzea»

**INMACULADA MUJIKA** Liburuaren egilea

Legeek eta gizarteak lesbianen onarpenean aurrera egin duten arren duela 30 urteko onartze prozesu gatazkatsuak eta beldurrak daudela dio Mujikak.

### J. GOIKOETXEA

Donostia

Inmaculada Mujika (Tetuan, Marroko, 1959) Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lesbianen ikusgaitasunari buruzko ikerketaren egilea. Soziologoa, psikologoa, gay eta lesbianen aldeko aktibista eta Aldarte arreta zentroko langilea da. **Liburuan bildu dituzten testigantzen arabera, gehienak harritu egin ziren lesbianak zirela jakitean edo konturatzean. Arrarotzat hartu zuten.**

Emakume guztiak ingurune heterossexual batean hazten eta hezten dira, hau da, mundu guztiak heterossexuala izan behar duela dioen giroan. Baina lesbianak halako batean konturatzen dira beren sentimenduak ez duela bat egiten gizartean aurrez prestatutako gidoiarekin. Lesbiana askorentzat sorpresa bat da, inork ez baitie esan beste aukeraren bat dagoenik.

**Ondoren egoera onartzeko zailtasunak sortzen dira, ezta?**

Ez beti, baina bai gehienetan. Elkarriketatuta ditudan emakume guztiek pasa zuten onarpen prozesu gatazkatsu bat: zalantzak, erreferentzia falta, beldurra, gertatzen zaiena adierazteko hitzen falta, ingurukoen bazterketa, lotsa, erruduntasuna, barneratutako homofobiak, arazo psikologikoak... Hori guztia egoera gainditu eta lesbiana gisa bizitzen saiatu arte. Prozesu konplexua da.

**Eta luzea.**

Bai, eta prozesu horretan emakume horien zorientasuna ez da posible.

**Kasu askotan nerabezaroan gertatzen da. Horrek emakume horiek markatzen al ditu?**

Bai, askok ezin izaten dute prozesu gatazkatsu hori gainetik kendu. Ingurukoentzat munstroak edo anormalak direla sentitzen dute eta askok isiltasun eta klandestinitate urte asko behar izaten dituzte hori gainditzeko. Elkarriketatuta dudan emakume edadetuenak 64



CARI CARNALDE / ARCAZKI PRESS

urte ditu eta 62 urtera arte isilpean gorde du lesbiana dela. **Adin ezberdinetako emakumeak elkarriketatuta dituzu, baina guztiak bizi izan dute beren lesbiana izaera onartzeko prozesu gatazkatsua. Baita gazteek ere. Zergatik?**

Atentzio gehien eman didan gauzetako bat da. 30 urtean izugarri aurrera egin da homosexualitatearen eta lesbianismoaren onarpen sozialean eta legalean. Baina aurrerapen hori ez dator bat egin beharko liratekeen aldekata batzuekin. Gaur egungo lesbiana gazteek ere, sexualki aktiboak izaten hasten diren lehen urteetan, ez dute sentipen positiborik sentitzen dutenarekiko. Eta berriro hasten da: harridura, besteei kontatu ezina, arraro sentsazioa... Gauzek aldatu behar dute zentzu horretan, familietatik hasi eta erakundeetara. Hori gertatzea saihestu behar dute. Ez da posible 20 urteko neska batek lesbianismoari buruzko erreferentzia positiborik ez edukitzea. Edo gauzak kontatzeko beldurra edukitzea, inguruan aurre egingo diotelako. Gizartearen eta legeen aldekata ikusita, ez luke gertatu behar, baina belaualdiz belaualdiz errepikatzen da. Bete behar den kanon bat dirudi. Sekulako presioak jasan behar dituzte lesbianak izateagatik. Gazteen eta edade-

**«Elkarriketatuta ditudan emakume guztiak onarpen prozesu gatazkatsu bat izango zuten»**

tuen testigantza batzuen artean ez dago alde kualitatibo handirik.

**Hezkuntza formalak eredu tradizionala betetzen ez duten sexualitateak isiltasunarekin estaltzen dituela diozu. Zer egin daiteke isiltasun hori gainditzeko?**

Hezkuntza sistemak eta agintariak kanpainak egin behar dituzte eta hitz egin behar dituzte lesbianismoaren onurez. Ez dira egiten. Emakumeen berdintasunaren aldeko politiketan ere gehiago hitz egin beharko litzateke lesbianismoari buruz. Homosexualen %15ek jakinarazten dute lanean homosexualak direla; aldiz, lesbianen %7k soilik.

**Lesbianak izan eta jakin arren, gizon batekin ezkondu eta seme-alabak edukitzea erabaki duten emakumeen esanak gordinak dira. Liburuko 18 testigantzetatik lauk pasa dute halako egoeraren bat. Hain ohikoa al da?**

Ez dakit. Liburuko proportzioa oso altua da, uste duguna baino ohikoa dela pentsatzeko modukoa. Nire ibilbide profesionalean ikusi dut lehen oso ohikoa zela ezkontutako emakumeek guregana jotzea, laguntza eske. Ohikoak dira bereiztuta edo dibortziatuta dauden eta seme-alabak dauzkaten emakume lesbianak. Horietako askok urte luzeetako zorrigaitzoko ezkontzak jasan dituzte.

**Emakume horiek ezkontza hautatu dute gizartearen aurrean normalak izateko?**

Bai, argi eta garbi. Bi aukera zituzten: anormalak, munstroak, izatea edo normalak izatea, gizon batekin ezkontzea. Gizarteak ezarritako gidoia betetzeko ezkondu dira.

**Emakume eta lesbiana izateak bazterketa bikoitza eragiten al du?**

Bai, generoaren baldintzak aintzat hartu behar dira. Gizartea androzentrikoa da eta gizona emakumearen gainetik jartzen du arlo guztietan: politikan, gizartean, ekonomian, kulturaren, sexualitatean... Eta abantaila gehiago eskaintzen dizkio. Horrek asko baldintzatzen du lesbianen ikusgaitasuna.

**Eta nola eragiten du gizarteak emakumei ezartzen dizkien egin beharrek lesbianengan?**

Oso erraz uko egiten diote beren plazer sexualari eta bizitza intimari, beste gauza batzuek arduratzen. Badirudi emakumeak uko egin behar diola bere sexualitateari ama izateko edo besteez arduratzen. Horrek eragina du: askotan ez da posible lesbianen sexualitatea.